

Esperientzia-gelak



UPV / EHU

+55 jarduera

Prestakuntza eta adina ez dira bateraezinak. Horren erakusgarri dira, ikasturtez ikasturte, EHUko ikasgeletara datozen 55 urtetik gorako pertsona guztiak, bizitza aktiboari eutsi eta, bidearen amaieran, Giza Zientzietan titulu bat lortzera.

Esperientzia-gelek ordainpeko lanik egiten ez duten adinekoen bizitza osoan etengabeko hezkuntza sustatzea dute xede. Unibertsitateko hainbat departamentuk curriculum-programa prestatzeko ardura hartzen dute, ikasleen gogoia asebeteko duena alor ugarian: pentsamenduaren bilakaera, haien arbasoen historia, gauzen zergatia...

Giza Zientzien Unibertsitate-titulua

Giza Zientzien Unibertsitate-Titulua lau akademi ikastaro gainditu ondoren lortuko da. Ikastaro bakoitzean lauhileko bi izango dira.

Lauhilabete bakoitzean lau irakasgai irakatsiko dira (hiru derrigorrezko eta hautazko bat, ikasleak aukeratutakoak). Irakasgai guztiek 4,5 kreditutako zama izango dute, lauhilabete osoan 45 ikastorduren balioa izanik,.

Okasketa hauek gairitu eta gero lorturiko tituluak ez du biderik emango titulazio ofizialetara sartzeko. Halaber, ez du lan-jarduera profesionalik emateko gaitasuna ematen.

Titulu honetako irakasgai gehienak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, irakatsiko dituzte.

Ikasturtean zehar hautazko jarduera osogarriak burutuko dera (kontzertuak, hitzaldiak...).

Informazio gehiago [hemen](#) sakatuz (kanpoko esteka).